**BAZTANGO BATZAR NAGUSIA**
***JUNTA GENERAL DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN***

**2024ko AZAROAren 21eko EZOHIKO BILKURA**
***SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 21 DE NOVIEMBRE DE 2024***

**BERTARATUTAKO BATZARKIDEAK**
***SEÑORES/AS VOCALES ASISTENTES***

**ZINEGOTZIAK / *CONCEJALES*:**
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
MARIANO IRIBARREN IRIGOYEN
JOSE LUIS RETEGI ITURBIDE
LOREA LIZARRETA INSAUSTI
FLORENTINO GOÑI TELLECHEA
JOSEBA MORENO VIDEGAIN
IÑIGO ITURRALDE ELICECHE
PELLO SARRATEA SANZBERRO
ANASTASIO NAGORE GARRALDA

**HERRIETAKO ALKATEAK / *ALCALDES:***
ALMANDOZ: BEATRIZ ECHEVERRIA VALCARLOS.
AMAIUR: Mª ISABEL ALEMAN IRUNGARAI
ANIZ: IGNACIO ZELAIETA ERASUN
ARIZKUN: IMANOL ETXEBERRIA ANTXORENA
ARRAIOZ: ARITZ ALUNDA PAIN
AZPILKUETA: ANA IRUNGARAI JUBERA
BERROETA: CARLOS GARAIKOETXEA ELSO
ELIZONDO: AITOR BAZTERRIKA ZELAIETA
ERRATZU: IÑAKI SANZBERRO GOÑI
GARTZAIN: FERNANDO ARRAZTOA LARREGUI
IRURITA: ROBERTO IRIGOYEN IRIARTE
LEKAROZ: ERNESTO PRAT URZAINQUI
ORONOZ: JORGE Mª OTEIZA UGARTE
ZIGA: JOSE ANTONIO ECHEVERRIA OSACAR

**BATZARKIDEAK / *JUNTEROS:***
BAZTANGOIZA: JULIAN RECALDE IRIGOYEN
ERBEREA: PEIO OBREGOZO ISTILART
ELIZONDO: MIKEL SOBRINO URRUTIA
BASABURUA:

**MENDI KOMISIONATUAK / COMISIONADOS DE MONTES**
BAZTANGOIZA: JUAN LUIS CARRICABURU BIDEGAIN
ELIZONDO: IBAN LARRATXEA IRIGOIEN
BASABURUA: ASIER GAMIO IGOA eta GORKA AGUSTIN MIGUELTORENA ECHENIQUE
ERBEREA: LUIS JAVIER LAURNAGARAI MIHURA

**AGERTU EZ DIRENAK / *NO HAN ASISTIDO:***
GORKA URTASUN SALDIAS
ALAITZ ARRETXEA ETXEBERRIA
ANDONI IRIGOYEN MARITORENA
LANDER MATTIN SANTAMARIA ALCOCER
ELBETE: IMANOL JUANICOTENA TABERNA
ELIZONDO: PEDRO ALBERRO EQUIOIZ

Elizondon dagoen Baztango Udaletxean, **2024ko azaroaren 21ean, 19:00etan**, FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI batzar-burua dela eta legezko deialdia aitzinetik eginik, ondoan aipatutako batzarkideak bertaratu dira, bai eta batzarkideak ez diren zenbait mendi ordezkari ere, batzarkideen laguntzaile gisa. Eta bertan IULEN URBIOLA LOYARTE jauna idazkari delarik, **BAZTANGO BATZAR NAGUSIA** bildu da, **ezohiko** batzarra lehendabiziko deialdian egiteko asmoz.

Batzar-buru jaunak bilkura hasiko dela adierazi du, bilkura publikoa izanik. Gai-zerrendan bildutako aferak eztabaidatzeari ekin zaio eta ondoko erabaki hauek hartu dira.

*En la Casa Consistorial del Noble Valle y Universidad de Baztan, sita en el Lugar de Elizondo, siendo las **19:00 horas** del día **21 de noviembre de 2024**, bajo la Presidencia del Sr. presidente D. FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI y previa su citación en legal forma asisten las señoras y señores vocales relacionados al margen, así como algunas y algunos comisionados de montes no vocales, en calidad de auxiliares de las junteras y junteros. Y estando presente el secretario IULEN URBIOLA LOYARTE, se reunió **LA JUNTA GENERAL DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN** al objeto de celebrar sesión **extraordinaria** en primera convocatoria.*

*El Sr. presidente manifestó que comenzaba la sesión, siendo la misma pública, procediéndose seguidamente a tratar los asuntos comprendidos en el Orden del Día y siendo adoptados los acuerdos que seguidamente se indican.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/12/13
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/12/13

**1.- Antton Irigoyen Urrutiak aurkeztutako Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Batzar Nagusiak 2024ko uztailaren 1ean hartutako 3.10 erabakiaren aurkakoa. 222/2024 prozedura arrunta.**

Antton Irigoyen Urrutiak Batzar Nagusiaren 2024ko uztailaren 1eko 3.10 zenbakiko bilkuraren erabakiaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren berri eman da. 222/2024 prozedura arrunta.

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondotik, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eta honela laburbiltzen dena:

**Fernando Anbustegi, batzar-burua**: Gogoratuko duzue, pasa den uztaileko bilkuran akordio bat hartu zuela Baztango Batzar Nagusiak Antton Irigoyen Urrutiak egindako luberri eskaeraren inguruan, TANen ebazpena kontuan hartuta, konpentsazio bat eskaintzea adostu genuela: uztailean eta urrian baja emandako luberriak eskainiko zitzaizkion eta 15 eguneko epea emanen zitzaion 8 Hektareako azalera zuten luberriak aukeratzeko. Hala egin dugu eta epea agortuta, Anttonek ez du luberririk aukeratu. Akordio hartan aipatzen zen, epe hori igarota aukeraketarik eginen ez balu bere eskaera bertan behera utziko zela eta luberriak poltsara bideratuko zirela.

Dena den, tartean, urriaren 17an Anttonek helegite bat jarri du administrazioarekiko auzietako epaitegian, pasa den uztailaren 1ean Baztango Batzar Nagusiak hartutako erabakiaren kontra.

Beraz, honen inguruan Baztango Batzar Nagusia informatu eta erabaki bat hartzeko deia egiten dugu. Berez, uztailaren 1ean hartutako akordioari jarraiki, Anttonek luberririk aukeratu ez duenez, uztailean eta urrian bajan emandako luberriak poltsara joanen lirateke. Dena den, kontuan hartu behar da Anttonek erabaki horren kontra jo duela epaitegira eta ikusteke dago zer erabakiko duen epaitegiak; beraz, Anttoni arrazoia ematen badio, baliteke luberri horiengan eragina izatea.

Hori dela eta, Batzar Nagusiari bere iritzia eskatuko diogu, zer egin erabakitzeko: hau da, gure uztaileko erabakiari jarraiki eta bajan emandako luberriak poltsara bideratu, edo bajan emandako luberrien esleipena izoztu, administrazioarekiko auzietako epaitegiak erantzun arte.

Guk, gure aldetik, uztaileko erabakiarekin aitzinera segitzearen alde bozkatuko dugu. Koherentziagatik. Baztango Batzar Nagusiak erabakitzen du herri lurren inguruan, eta hala erabaki zuen, TANen ebazpena betez. Ez dakigu administrazioarekiko auzietako epaitegiak zer erabakiko duen, baina argi dugu aspaldiko mendeetatik honat baztandarrek dugula eskumena Baztango herri lurrak kudeatzeko, eta hala izaten segitzearen alde borrokatuko dugu.

***1.- Recurso Contencioso-Administrativo interpuesto por Antton Irigoyen Urrutia contra el acuerdo de la Junta General nº 3.10, de sesión de 1 de julio de 2024. Procedimiento ordinario nº 222/2024.***

*Se da cuenta del Recurso Contencioso-Administrativo interpuesto por Antton Irigoyen Urrutia contra el acuerdo de la Junta General nº 3.10, de sesión de 1 de julio de 2024. Procedimiento ordinario nº 222/2024.*

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias del mismo, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:*

***Fernando Anbustegi, presidente**: Recordaréis que en la sesión del pasado mes de julio la Junta General del Valle de Baztan adoptó un acuerdo en relación a la petición de roturación formulada por Antton Irigoyen Urrutia, y, que teniendo en cuenta la resolución del TAN, acordamos ofrecerle una compensación: se le ofrecerían las roturaciones dadas de baja en julio y octubre y se le concedería un plazo de 15 días para seleccionar roturaciones con una superficie de 8 Has. Así lo hemos hecho y agotado el plazo, Antton no se ha decantado por ninguna roturación. En aquel acuerdo se indicaba que, si transcurrido ese plazo no realizaba ninguna elección, se suspendería su solicitud y se destinarían las roturaciones a la bolsa.*

*De todos modos, el pasado 17 de octubre Antton interpuso un recurso ante el juzgado de lo contencioso-administrativo contra el acuerdo adoptado por la Junta General de Baztan el pasado 1 de julio.*

*Por lo tanto, hemos convocado a la Junta General de Baztan para informar sobre ello y para solicitar que adopte un acuerdo al respecto. De hecho, en virtud del acuerdo adoptado el 1 de julio, al no haber escogido Antton ninguna roturación, las roturaciones dadas de baja en julio y octubre irían a la bolsa. Ahora bien, hay que tener en cuenta que Antton ha interpuesto recurso en el juzgado contra este acuerdo y está por ver qué decidirá el juzgado, por lo que si le da la razón a Antton podría afectar a estas roturaciones.*

*Por ello, solicitamos su opinión a la Junta General, para decidir qué hacer: es decir, proseguir con lo acordado en julio y derivar las roturaciones dadas de baja a la bolsa, o congelar la adjudicación de las roturaciones dadas de baja hasta que el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo conteste.*

*Nosotros, por nuestra parte, votaremos a favor de seguir adelante con lo acordado en julio. Por coherencia. Es la Junta General de Baztan la que decide sobre los terrenos comunales y así lo acordó, en cumplimiento de la resolución del TAN. No sabemos lo que decidirá el juzgado de lo contencioso administrativo, pero tenemos claro que desde hace siglos los baztandarras somos los competentes para*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/12/13
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/12/13

Ez dugu bidezkoa ikusten jaten ematen dion eskuari behin eta berriz atxiki egiten dion baten eraginagatik, Baztango historia eta eskumenak zalantzan jartzen dituen baten eraginez, gainerakoak janaririk gabe gelditzea.

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak**: Galdetzen du eragina orain poltsan gelditzen direnekin edo etorkizunekoetan ere.

**Fernando Anbustegi, batzar-burua:** Ezin da jakin, logikoena eragina izatea da, igual ez du eraginik ere.
Erabakia hartu behar da, uztaileko erabakiarekin aintzinet egitea, eta Anttonek aukeratu ez dituenez luberriak boltsara gatea edo horiek izoztea, uztailean eta urrian bajan emandakoak izoztea, ez esleitzea, administrazioarekiko auzitegiko epaitegiak bere auzia eman arte.
Batzar buruaren proposamena uztaileko erabakiarekin aintzinet egitea eta poltsara gatea koherentziagatik.
Uztailean erabaki bat hartu zuen Baztango Batzar Nagusiak, TANen ebazpena kontuan hartuta, konpentsazioan oinarrituta hartu zen erabakia, eta erabaki hori bete da, 15 eguneko epea ere eman zaio Anttoni luberriak aukeratzeko.
Uste dute Baztango Batzar Nagusiak bere erabakiak hartzeko eskumena duela. Pertsona batek behin eta berriz legitimitatea zalantzan jartzea erabakitzen badu bere erabakia da; uste dute ezin dutela baldintzatu gainerako baztandarrak, kasu honetan izozten badute luberrien poltsa, kaltetuak gainerako baztandarrak izango dira.
Beraiek proposatzen dute uztaileko erabakiarekin aintzin segitzea, uztailean eta urrian bajan emandako luberriak poltsara gatea.

**Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan:** Abstenitu ziren uztaileko batzarran eta honetan ere abstenituko dira ez dutelako nahi gainerako baztandar guziek kaltetzea.

**Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Galdetzen du udalera Anttonek aurkeztutako helegitea ailegatu den, markatzen duen edo aipatzen duen zertaz aurkezten duen helegitea edo zertan oinarritzen edo zertan arrazoitzen duen.

**Ignacio Zelaieta, Anizko alkatea:** Erraten du kaltetuak bertze baztandarrak izaten ahal direla.

**Fernando Anbustegi, batzar-burua**: Ezin da jakin epaitegiak zer erabakiko duen, hipotesi anitz dira. Uste dute pertsona batek ezin duela baldintzatu bailara bat.

**Jorge Oteiza, Oronozko alkatea:** Ados dago Fernandok errandakoarekin, nahiko aukera eman zaizkio. Uste du uztailean hartuko erabakiarekin segitu behar dela eta poltsan sartu behar direla.

*gestionar los terrenos comunales de Baztan, y lucharemos por seguir siéndolo.*
*No vemos justo que por culpa de alguien que muerde una y otra vez la mano que le da de comer, se cuestione la historia y competencias de Baztan, y que el resto se quede sin comida.*

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak**: Pregunta si esto tendrá consecuencias en los que ahora están en la bolsa o también con los que haya en el futuro.*

***Fernando Anbustegi, presidente:** No se puede saber, lo logico es que influya, aunque igual no.*
*Hay que tomar una decisión; seguir adelante con el acuerdo de julio, y como Antton no ha elegido las roturaciones incluirlas en la bolsa, o congelar las bajas de julio y octubre y no concederlas, hasta que el juzgado contencioso administrativo dicte sentencia.*
*La propuesta del presidente es por coherencia, seguir adelante con el acuerdo de julio e incorporarlas a la bolsa.*
*El pasado mes de julio la Junta General de Baztan adoptó un acuerdo teniendo en cuenta la resolución del TAN, con base en la compensación, y dando un plazo de 15 días para la elección de luberris.*
*La Junta General de Baztan tiene competencia para adoptar sus decisiones. Si una persona pone en duda reiteradamente la legitimidad de la misma, es su decisión, no puede condicionar al resto de baztandarras. En este caso, si se congela la bolsa de roturaciones los perjudicados son el resto de baztandarras.*
*Ellos proponen seguir adelante con la decisión de julio, que los luberris dados de baja en julio y octubre vayan a la bolsa.*

***Iñigo Iturralde, Zurekin Baztan:** Se abstuvieron en la junta de julio y en ésta también se abstendrán, porque no quieren que al resto de los baztandarras les perjudique.*

***Pello Sarratea, Baztango Independienteak:** Pregunta si ha llegado al Ayuntamiento el recurso de Antton, y si señala o menciona qué es lo que recurre, a ver qué fundamenta o razona.*

***Ignacio Zelaieta, alcalde de Aniz:** Dice que los perjudicados son el resto de baztandarras.*

***Fernando Anbustegi, presidente**: No es posible saber qué resolverá el juzgado, son múltiples las opciones. Creen que una persona no puede condicionar a un valle.*

***Jorge Oteiza, alcalde de Oronoz:** Está de acuerdo con lo que ha dicho Fernando; le han dado bastantes oportunidades, cree que tienen que seguir con la decisión de julio y tienen que ir a la bolsa.*

SINATZAILEA
Baztango Alkatea / Alcalde de Baztan
FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI
2024/12/13
SINATZAILEA
Baztango Udal Idazkaria
IULEN URBIOLA LOYARTE
2024/12/13



Aipatutakoa kontuan harturik:
1.- **Batzar Nagusia jakinaren gainean** geratzen da. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. 222/2024 prozedura arrunta
2.- **Batzar Nagusiak,** aldeko 24 botoekin eta 2 abstentzioekin, **berretsi egiten du** Baztango Batzar Nagusiko batzar-buruaren 29-2024 Ebazpena, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoan agertu eta letradu zuzendaritza izendatzen duena. 222/2024 prozedura arrunta.
3.- **Batzar Nagusiak,** aldeko 19 botoekin, kontrako 1ekin eta 6 abstentzioekin, **erabaki du Baztango herritarren eskura jartzea uztaileko eta urriko Batzar Nagusietan baja emandako luberriak**.

*Teniendo en cuenta lo expuesto:*
***1.- La Junta General se da por enterada*** *del Recurso Contencioso-Administrativo. Procedimiento ordinario nº 222/2024*
***2.- La Junta General,*** *por 24 votos a favor y 2 abstenciones,* ***ratifica la Resolucion 29-2024,*** *del Presidente de la Junta General del Noble Valle y Universidad de Baztan, por la que comparece y designa a la dirección letrada en el Recurso Contencioso-Administrativo. Procedimiento ordinario nº 222/2024.*
***3.- La Junta General,*** *por 19 votos a favor, 1 en contra y 6 abstenciones,* ***acuerda poner a disposición de los vecinos de Baztan los luberris dados de baja en las Juntas Generales de julio y octubre.***

Jasota gera dadin eta behar diren ondorioak izan ditzan, honako Akta hau legezkoa egiten da, hasieran adierazitako egunean eta 19:22an bilkurari amaiera emanez, batzar-buruaren oniritzia izanik eta zigilaturik, neuk idazkariak fede emanda. Baztanen, 2024ko azaroaren 21ean.

*No habiendo más asuntos que tratar, para constancia y efectos consiguientes, se formaliza la presente Acta, levantándose la sesión a las 19:22 horas del día al principio indicado, llevando el Vº Bº del Sr. presidente y sellada en forma, de lo que yo, el secretario, doy fe. En Baztan, a 21 de noviembre de 2024.*

BATZAR-BURUAK ONTZAT EMANA
*Vº Bº EL PRESIDENTE*

*IDAZKARIA*
*EL SECRETARIO*